

**BANAKAKO
BIGARREN
OROTIDAZKIA**

GIZARTE LANGINTZAKO GRADUA, 2. MAILA

**BANAKAKO ETA FAMILIAKO GIZARTE LANGINTZA
IKASGAIA**

2022/2023 IKASTURTEA

1. IDEIEN LABURPENA

Irakurritako testu honetan, garrantzitsuena edo ekarpen handiena, ondorengoa dela deritzot: batetik, pertsona bakoitzaren berezitasunak kontutan hartzea, eta arreta pertsonalizatu bat ematen saiatzea. Eta bestetik, errespetuan oinarrituta egongo den arreta jasotzea, pertsona orok merezi duen duintasunaren argudiopean. Honek, ekarpen handia egiten du, adinekoei eman beharreko arreta handitzen ari delako, eta handitzearekin batera, despertsonalizatzen ari delako. Beraz, honen aurrean, proposamen egokia dela pentsatzen dut.

Artikuluko hiru kontzeptu, teoria edota argudio azpimarragarrienak, gainera, harreman zuzena dute honekin eta esan beharra dago, aipatuko ditudan 3 kontzeptuak, elkarlotuak daudela erabat. Arreta profesioaletik abiatuta, adinekoek bizitza on bat izan dezaten egiten den proposamenak, 5 puntu nagusi dauzka. Horietako bat, bizi-proiektuak babestearen ingurukoa da. Kontzeptu gisa, oso interesgarria iruditzen zait, pertsona ororentzat motibazio iturri delako bizi-proiektu bat aurrera eramatea, dena delakoa izanda.

Bigarren teoria garrantzitsuena, duintasunarekiko errespetuarena da. Bertan, pertsona orok, gutxieneko batzuk dauzkala aitortzen da, eta hauek beti errespetatu behar direla aipatzen da, hala nola: tratu adeitsua ematea, ohitura eta balioekiko errespetua, heldu gisa tratatzea eta ez ume bezala edota intimitatearekiko errespetua.

Eta azkenik, hirugarren kontzeptu azpimarragarria daukagu: apustuen puntuan aurkitzen den azpipuntua aipatuko dut: zentzuzko jarduera terapeutikoak egitearena. Izan ere, zahartzeko prozesuan, gaitasunak galtzen doaz helduenak ere, baina hau ekiditeko aukera dibertigarriak badaude, eta probestu egin behar dira, alde batera utziz jarduera aspergarri eta infantilak.

2. PRAKTIKA: ZER EMAN DIZU IRAKURKETA HONEK

Irakurketa honek, aspektu desberdinetan egin dit ekarpena. Hasteko, helduen arretaren inguruko gogeta egitea ahalbidetu du, eta nire egoera pertsonalarekin lotzea, helduak zaintzeari dagokionean. Enpatiaz jokatzearen garrantzia ere birgogoratu dit testuak, eta zein garrantzizkoa den, arretaren esparrua, nahiz eta, paradogikoki, zaintzen dutenak ez daukaten inolako aitortzarik, ez ekonomikoa ezta soziala ere.

Aurretik aipatutakoa, orokorrean, positiboa dela pentsatzen dudan arren, iruzkin kritikoa egiteari begira, lortzeko zaila den proposamen bat dela esan beharra daukat. Izan ere, zaintza esparrua, gizarteko beste hainbat eta hainbat esparru bezala, ez daude langileen jarreragatik baldintzatuta. Arretaren esparruan adibidez, ratioak oso altuak izateak eragin izugarria dauka, eta bertako langileen borondatea izugarria izan arren, baldintzak aldatzen ez badira, proposamena ez da egingarria. Eta baldintza hauek aldatzea, ezinezkoa da gaur egun, Sistema Kapitalistaren baitan bizi garen bitartean. Izan ere, Sistema Kapitalistaren baitan, gutxi batzuen interesak gainjartzen dira, gehiengoarenen gainetik, eta adinekoen zaintza esparruak, ez du inolako etekinik ematen, beraz, ez du merezi hau ahalik eta hobekien egitea.

Azkenik, irakurgaia erraza egin zait irakurtzeko, eta ez dut inolako zailtasunik izan.

3. PRAKTIKA: AIPATU ITZAZU HUNKITU/HARRITU ZAITUZTEN BI ESALDI

“Adinekoak zaintzeak gauza askori erantzutea dakar. Ez datza hainbat zerbitzu edo arreta eskaintzean, besterik gabe. Adineko bakoitzari babes eta ahalik eta bizitzarik onena izateko aukerak eskaini behar dizkiogu. Zaintzeko era guztiak eta zerbitzu profesional guztiak ez dira berdinak, eta denek ez dute aukera ematen helburu horiek lortzeko”. (Matia 2014, 1.or.)

Esaldi hauekin ados nago hein batean, baina amaieran, aipatutako helburuak lortzeko zailtasunak egon daitezkeela aipatzen da, baina nire ustez, ez da nahikoa zailtasunak egon daitezkeela esatea. Baizik eta zailtasun hauek zeintzuk diren identifikatu eta hauen oinarria jo behar dela uste dut.

Bigarren esaldi gisa, ondorengoa aukeratu dut.

*“Familien inplikazioa bultzatzen dugu, betiere pertsonak onartzen badu”.
(Matia 2014, 16.or.)*

Alde batetik, garrantzitsuena, heldua, nahiko autonomia eta bere buruaren jabe bada, erabakien partaide egitea da. Eta bestetik, familiekin harremana ona bada, mantentzen saiatzea oso garrantzitsua dela uste dut, indarra ematen baitie helduei, haien lekua munduan zalantzan edo soberan ikusten duten momentuan, maitatuak direla ikusteak.

AIPAMEN BIBLIOGRAFIKOAK (APA)

Matia fundazioa (2014). *Pertsonarengan oinarritutako arreta eredia. Koaderno praktikoak*. 1.koaderno